

'Largero' kantua

Largero largero,
jueves da largero,
Viernes de cruz,
Sabado de pascua,
resucito Jesus.

En don don. En don don.

Txorizo fresko, arrautza fresko,
urdei fresko, koipe fresko,
piperrarekin espezi
Bartzelonatik erosi,
etxeko jaunak ematen badu
koplatuko det lizentzi.

Atzo gabian ikusi nuan
sukalde bazter batian,
lukainka ilera eder galanta
bata bestian atzian.

Ezin esan gezurrikan
ez gabiltzala eskian,
nola demontre izan bestela
hainbeste kantu artian.

Baina etxeko andria
zuk ibili argi begiak,
zedozertxobat emanik gabe
ezaizu itxi atia.

Konfiantzia izango banu
nagusi etxe honetan,
zeure alabai esango nizke
gauza bi gaur bertsuetan.

Beti bezela egonik gabe
ate izkinan berriketan,
zedozertxobat ekar dezala
guretzako eskuetan.

Esker ta agurrak ematen dizut
beste danakin batera,
urte ontxo bat izan dezala
osasuna ta pakea.

Limosna ere hartu degu eta
orain bagoaz pakean,
adiosikan ez degu eta
agur ikusi artian.